

**Pepe Artola**

**MOTXA ERRIYAN**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoaren irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen jatorria: [Gipuzkoako Foru Aldundia](#): *Mocha errivan (bakarizketa)*, José Artola. J. Baroja ta semeen moldiztegia, 1913

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=270>

DONOSTIYAN  
J. BAROJA TA SEMEEN MOLDIZTEGIAN  
1913

# **MOTXA ERRIYAN**

## **(BAKARIZKETA)**

Iruditegiyak aurkestatzen du Donostian Biltoki Zarreko iruditegia. Azalduko da MOTXA baserritar ongi jantziyaren itxuran.

Au dan lan bidia! Zer egin bear det nik? Neri gertatzeko ez da asko au ere, Mari Iñaxi ta biyak elkarrekin atera gera goizian baserritik, emen festak ikusteko asmoan, alai eta pozez, gazta, arraultz eta sagar batzuben otarran ditugula, ausoko Pellipe-ren alaba emen nola serbitzen dagon, ari emateko asmoan.

Emengo edertasuna! Jesus! Bada ikusgarriya franko.

Kale kantoian batian adiskide bat billatu degu ta arekin berriketan ari gerala, pru pru egiñas uste gabe etorri da alako artomutilla edo kurpil asko dituben gurdi aundi bat eta zart jotzen nau zayatziarian ta txamarretik zintzilik an eraman nau ainbeste birian; burrundarakin usiatu ditu guziak, uste det oraindik

segitzen ditala bada an zakabanatu gera, eta ez gera  
geyago elkar ikusi: Mari Iñasi gajuak zer egiñ ote du!  
Nik ikara pasatziagatik sartu naiz ardo piska bat eda-  
tera, eta andik atera naizenian jiran asi naiz eta ikusi  
det geldirik dagola plazan len bezelako artomutill  
aundi bat; neri iruditu zait lengua bera zala, eta kolko-  
tik aterarik sagar panpandoja aundi bat, tira diyot  
artzaren larruz jantziya zegon gizon arri, ain indar  
aundiz, non jo detan begi onduan, eta miñ egin ta  
bezela utzi det, orduan etorri zait zelatari bizar aundi  
bat, eta besotik elduta arrastaran arturik diyot: Ben-  
guste sgiro.

Nik esan diyot:

Otso larru con gurdi  
zarrazt a mi bulkar,  
de la kolko mantzana  
nik artu ta tirar;  
sin querer begi ondo  
has hecho yo pegar  
no culpa tener nara  
a mí no castigar

Arrastaran eraman nau arkupeko leku batera, eta an jaun ayetako batek esan dit euskera garbiyan ea zer gertatu zaitan, eta nongua naizen; nik kontatu diyot guziya garbi, eta bizkarrian eskuakin joaz esan dit:

-Aizkiria, ez eztutu, ori ez da ezer -eta arrazoya esagaturik barkatu egin dirate.

Bai gizon ona urase!

Nere poza arrekiñ abiyatu naiz kantari, eta bertso au berari bota diyot:

Eskarrikasko jaun on  
prestu ta leyala,  
banekiyen euskaldun  
onak badirala,  
estimatutzen diyot  
eziñ esan ala  
neregatikan egin  
duben egiñala,  
jainkuak osasuna  
eman dezayola.

Farrez, farrez, esan dit: Aizkiria, zuaz eta umore onari kontu egiñ.

Ni ere oso pozturik abiyatu naiz nere atxua billatu-ko ote detan asmoan, eta argi pilla bat ikusi det etxe aundi batian, eta gizon bati galdetu diyot: Zer da ori, inpernuba?

-Ez, ori da kapeteriya.

-Kapeteriya?; bada onera ezkerro progatu bear dugu bada ori ere; sartu naiz barrena. Mutillak, ura jendien emana!, bazan ginbela naikua an; sartu naiz aurre aurreraño, eta eseri naiz deskantsu onian emakume lodi, aberarz eta beste jaun baten onduan. Ura usai gozua!, gure Mari Iñasik bañan obia botatzen zuben lodi arrek; ontan oju bat egin det: eup!..., eta etorri da gizon begi oker bat buru utzik eta mantal zuriyarekin, eta diyo:

-Zer nai du?

-Kapia...

-Zenbat?

-Pitxerdi bat.

Ekarri bitartian asi naiz kantari doñu ederrian, beriala ingurutik asi zaizkit sist... sist... egiñaz, zeñek egiten ote ziran begiratzeko altxatzerakuan jotzen det aldameneko maya, zanba!, bota ditut ontzi guziyak, zikindu zan señora lodi ura, gizonak batoya altxatzen du ni jotzeko asmuan ta ni berari eldutzera nuala, artu

det anka azpiyan señora ura, denak zutik jarri dira, bestiak burruka zalako itzuli, ango ontzi soñu ta karra-siyak. Ontan etortzen da pintxe begi okerra, eltzen dit lepo zamarretik eta kapia artu gabe arrastaran atera nau kanpora eta zelatari batek eldurik eraman nau berriro lengo plazako zulo artara; birian zeladoriak esaten ziren bestia, bestia, eta nik niyon, bai bestia len bat eta orain bestia.

Lengo jaun euskaldun arrek berak, ostera diyo:

-Oraiñ ere emen zera?

-Ez nuben nai, bañan ekarri naute, eta kontatu niyon berriro nere gertaera.

-Gizona, gizona, kontu piska bat bearda izan, eta ostera barkatu egin ziran.

Bai gizon ona urasen! euskalduna izan! Farrez esan dit, ongi ibiltzeko kontuz, eta pakian festak ikus-teko.

-Bai jauna, bai, eta beorri gure baserri aldera etortzen bada errege bezela maitatuko degu. Gero ala diyo:

-Aizkiria, zu euskalduna zeran aldetik, joan bear zenuke biltoki edo teatro-ra, an euskerazko puntzi-yuak egiten dira.

-Bañan, Mari Iñasi billatu bear det lenbizi.

-Agiyan an bertan izango da; eta tori esanaz, berak eman dit txartel au (jendiari erakutziyaz). Jau-nak, erdiya emango niyoke nere atxua non dan era-kusten naubenari. Gajo ura agiyan nere billa ibilduko da! (eserita daudenari.)

Beok ez aldute ikusi emen emakume bat buruko mototza eta abarkarekin? Beok ere ez? Oju egitera nua ea zokoen batetik erantzuten duben. (ojuka) Mariñasi!... Mariñasi!...

Bai zera! Jaunak, nondik joaten da orrera...

Eta non egiten dute euskerazko puntsiyo ori?

Motellak, badago jendia ementxen komeriantien zai, eserita deskantzuan lasai. Nik ere orrera joan bear det bada, arrano pola! (ojuka) Mariñasi!... Mariñasi!... (goitik) Zer, emen naiz.

-Ara. Aufa mutillak; ajola gutxi oraiñ neri! Emen dagon zulo au izango da orrera joateko atia; aguro sartuko naiz bada. Ariyo jaunak...

(Apuntatzallien concha-n buruz bera sartzen da, eta etortzen da Biltokiko zaitzalle edo akomodadoria, ark beso ondotik eldu ta eramaten du barrena.)

AMAITU DA